



**UDALBATZAK 2013KO MARTXOAREN 21EAN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI
DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila hamahiruko martxoaren 21eko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luis Maria DIEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Irune BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- Maria RODRIGUEZ RODRIGUEZ
- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTIN
- M^a Angeles MACHIN RODRIGUEZ
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- M^a del Mar CARRILLO GASCON
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Maite PEÑA LOPEZ
- Jose Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- Jose Manuel HERZOG DE BUSTOS
- M^a Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO

Bertan dago, ekitaldia egiaztatzeko, behin-behineko idazkariorde Vicente CASTIELLA CASTIELLA jauna.

Era berean, bertan dago Udal kontu-hartzaile Txema ARENZANA GARCIA jauna.

1. Udalbatzak 2013ko urtarrilaren 29an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Behin-behineko Idazkariordeak Udalbatzak 2013ko urtarrilaren 29an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion aktaren berri eman ondoren.

Udalbatzak onartu du inolako oharrik egin gabe.

2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak (118 zk.etik 180 zk.era) Zinegotzi-ordezkarienak (251 zk.etik 391 zk.era, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Idazkariak ondorengo ebazpenen berri eman du: Alkatetzarenak (118 zk.etik 180 zk.era) Zinegotzi-ordezkarienak (251 zk.etik 391 zk.era, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.



3. 2012ko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.

Udalbatzari Udaleko eta hiru patronatuen 2012ko Aurrekontua Likidatzeko dekretuen berri eman zaio.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. Proposamena: Udal honek 2012ko abenduaren 31n zituen Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketa onartzea.

2011ko apirilaren 29ko Udalbatzaren erabakiaren bidez onartu zen, 2011ko martxoaren 31ko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketa.

Egun horretatik 2012ko abenduaren 31 arte hainbat aldaketa egin dira inbentarioan. Bertan jaso diren arren, Udalbatzak onespina eman behar die.

Kontratazio eta Ondarea saileko Arduradunaren txostena kontuan hartuta.

Eta Lehendakaritza eta Barne-antolaketa batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du, Lehendakaritza eta Barne-antolaketa batzordean planteatu zuen moduan, nahiz eta alde zuzenetik aitortzen duen Ondare departamentuan eginiko lana, gaur osoko bilkurara ekarritakoa, batez ere, Udalaren lurzoru-ondareari dedikaturiko instalakuntzak dira, horrek betebeharrak dituztela esan nahi duelarik. Haren aburuz, departamentuaren lan-maila garrantzitsua da, baina uste du denek helburutzat jarri beharko luketela une hauetan Ondare-ondasunen Inbentarioan jasotzen ez den guztia jasotzea. Aurreko legegintzaldian -dio-urratsaren bat eman zen, eta ildo horri jarraiki, behin lanik premiazkoena egin ondoren, uste du, beharbada, udal lokalen afera izango dela inbentarioa osotasunean osatzeko falta dena. Aldeko botoa emango du, baina argi utzi nahi zuen zuzendu beharreko hutsuneren bat badutela.

* Herzog jaunak (PP) esan du, berak dakien heinean, industria-poligonoetan Udala titularra den guneak daude, zein titulu duten ez dakitenak hain zuzen ere. Berari gustatuko litzaioke ahalegin bat egitea Udalaren partzela horiek non dauden kokatzeko eta zein jatorri duten jakiteko.



* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du ados daudela Errenteriako Ezkerrako ordezkariak, ondare guztien inbentarioa izateko norabidean ahalegin gehiago egiteko eskatuz, esandakoekin.

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du aldeko botoa emango dutela. Euren ere bat datoz Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esandako hitzekin.

* Diez jaunak (O.E. BILDU), Herzog jaunari (PP) argibideak emanez, esan du hurrengo batzorde-bileran aitatuko dutela Industrialdeetan egiten diren lagapenen-afera. Izan ere, bere garaian tailer batzuk lagatu ziren planeamenduaren arabera, eta, dioen moduan, hurrengo Lehendakaritza Batzordean esplikatuko dute.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 18 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak, PP) eta 3 abstentzioz (EAJ/PNV),

E R A B A K I D U

1.- Onespena ematea 2012ko abenduaren 31ko Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzenketari. (Espedientearen eranskina).

2.- Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea Inbentarioaren zuzenketa horren kopia bat, Idazkariorde Orokorrak baimendu eta Alkate-Lehendakariak emandako oniritziarekin, Entitate Lokalen Ondasunei buruzko Araudiko 31. artikulua agintzen duenaren arabera.

5. Proposamena: 2013. urterako "Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitza" Udal Patronatuaren lanpostu zerrenda aldatzea.

Patronatuko buruak lanpostu-zerrenda aldatzeko proposamena egin du, langileria-plantilla bere horretan utzita.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketa batzordeak proposatuta.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, PP) eta 10 abstentzioz (EAJ/PNV, Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak),

E R A B A K I D U



LEHENENGO.- Lanpostu-zerrenda aldatzea sukaldari/buru eta sukaldari/laguntzaile lanpostuen berariazko osagarria espedientean jasota dagoen bezala eguneratuz.

BIGARREN.- Argitaratzea langileria-plantilla eta lanpostu-zerrendaren testu osoa (erantsita doazenak) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Egoitzako iragarki-oholean.

6. Proposamena: Udal honetako lanpostu bati atxikitutako berariazko osagarria aldatzea.

Udalbatzak, 2004ko martxoaren 26an eginiko osoko bilkuran, erabaki zuen berariazko osagarria igotzea gidari, ofizial eta operari lanpostuei, hain zuzen berorietan lana, era neketsuan, arriskutsuan edota toxikotasun baldintza berezietan egiten delako.

Orduan Hiri Mantentze Azpisaileko zerbitzu ezberdinetako arduradun-lanpostuen ordainsariak ez ziren igoak izan, hain zuzen baldintza berezi horietan ez zutelako lana egiten.

Urte honetako otsailaren 5ean Hiri Mantentze Azpisaileko arduradunak eginiko txostenaren bidez jakin dute Lorezaintzako arduradunak taldeko langile bat gehiago izango bailitzan jarduten duela, hots, nekea, arriskua edo toxikotasun baldintzapean.

Kontuan izanik lanpostu honetan ematen diren baldintza berezi hauen ordainketa berariazko osagarrian jaso behar dela, aldezturik lanpostuaren balorazioa eginda.

Bestalde, Lorezaintzako arduradunak lan neketsu, arriskutsu edo toxikoak egiteko garaian atal horretako beste edozein ofizial bezala jarduten duenez, eta lanpostu horretan baldintza horietan lana egitea urteko 2.000 €-an baloratua izan zenez, proposatzen dugu diru-kopuru hori bera, gainontzeko ofizialei bezala, 2004. urtetik hona eguneratuta, aplikatzea arduradun-lanpostuari.

ELA eta LAB sindikatu-atalek otsailaren 13an, lanpostua baloratzeko eta ofizialearen lan zenbait arduradunak ere egin behar dituela justifikatzeko, gaia mahai gainean uzteko eskaera egin zuten, iragan otsaileko Lehendakaritza eta Barne-antolaketa batzordeak ez zuen irizpenik eman.

Hiri Mantentze Saileko arduradunak otsailaren 26an eginiko txosten osagarria ikusi du. Bertan aitatzten ditu lorezaintzako arduradun-lanpostuaren balorazioa berehala egin eta eginkizunak berrikusi behar direla, hala nola, lanpostua baloratzen den artean zerbitzua derrigor eman behar denez, arduradunak egin behar dituela kimaketa-lanak eta zuhaitz-mozketak, eta horiek berekin daramatela arriskua, nekea eta toxizitatea.



Kontuan hartu da Enplegu Publikoko Oinarritzko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 24. artikuluan xedatutakoa, 861/1986 Errege Dekretua, apirilaren 25ekoa, Toki Administrazioko funtzionarioen ordainsariak ezartzen dituenak, eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea, apirilaren 6koa, 77, 78 eta 79 artikuluek.

Ikusi da Giza Baliabide Saileko AOT-ren 2013ko martxoaren 7an eginiko txostena.

Halaber, Udal kontu-hartzaileak 2013ko martxoaren 12an eginikoa.

Orobat, Udal idazkariak 2013ko martxoaren 18an gaiari buruz eginikoa.

Lehendakaritza batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du azaldu nahi duela bere taldea zergatik abstenituko den. Eurek argi dute, langile bati, egiten duen lanagatik ordaindu behar zaiola, eta honek kontratatua izan denerako lanak egin behar dituela. Era berean, argi du langile batek lan neketsua edo arriskutsua egiten badu, hots, bere berariazko osagarria igotzea eskatzen duena, ba, ordaindu behar zaiola. Haatik, ez du hain argi kasu honetan jarraitu den prozedura bidezkoa izan ote den, zeren eta, lanpostuaren balorazioa egin ordez, osagarria igotzea departamentuan bere gaineratik dagoenak eginiko txosten soil batean oinarrituz, iruditzen zaie atea irekitzen diela gerora eman daitezkeen kasu posibleei, non nahikoa izango baita, lanpostuen balorazioa egin ordez, bere gaineratik dagoenaren txosten xume bat izatea. Hori horrela, eurek ez dute inongo zalantzarik, gainera, uste du, hor denak datozela bat, alegia, langile honek merezi duela gehiago ordaintzea, egiten duen lan neketsua eta arriskutsua egun ez zaiolako ordaintzen. Alabaina, lehen aitatu duen moduan, jarraitu den prozedurak puntu beltz hori du, eta horretxegatik, ordaintzea bidezkoa dela iruditzen bazaie ere, abstenituko dira.

* Herzog jaunak (PP) esan du eurek ohiz kanpoko kasutzat hartzen dutela lorezaintzako taldearen lana egiteko modua. Izan ere, Arduradunari lan neketsua eta arriskutsua egiteagatik ez ordainduz gero osagarri hori, honek, peoiak kokatu ostean, ez luke ezer gehiago egitekorik izango. Eta pertsona bat nominan edukitzea soilik hori egiteko, iruditzen zaie erren geratuko litzaiekeela. Beraz, bada, peoi baten moduan lanean jarduteko gauza bada, eta egiten du, peoi baten gisan kobratu behar du lan-neketsuari dagokiona, gaineratu du.

* Diez jaunak (O.E. BILDU) esan du PP-ko ordezkariak bere diskurtsoa kendu diola. Bere iritziz, gai honen inguruan eman



daitekeen azalpenik hoberena eman du, eta ondorioz, bere egiten ditu haren hitzak.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (O.E. BILDU, Errenteriako Ezkerra, PP) eta 10 abstentzioz (EAJ/PNV, Socialistas Vasco - Euskal Sozialistak),

E R A B A K I D U

LEHENENGO. Aldatzea berariazko osagarria "Lorezaintzako arduradun" lanpostuari -5270 kodeduna-, hain zuzen egun lorezaintzako ofizialek nekea, arriskua edota toxizitate-baldintzetan lana egitegatik urteko jasotzen duten kopuru berdinean, hau da, urteko 2.389,24 euro.

BIGARREN.- Aldatzea indarrean dagoen lanpostu-zerrenda, "lorenzaintzako arduradun" lanposturako onarturiko berariazko osagarriaren igoera sartuta.

HIRUGARREN.- Onarturiko berariazko osagarria bere horretan mantenduko da ahalik eta arduradun-lanpostuan lana nekea, arriskua eta toxikotasun-baldintzapean -eginkizunak definitzen direnean berrikusiko direnak- egiten duen bitartean.

LAUGARREN. Igoera hori aintzat hartzea aurrekontuaren I kapituluan.

7. Jose Angel Rodriguezek (Socialistas Vasco - Euskal Sozialistak) "KABIA" proiektuak eragindako gastuei buruz eginiko galerei erantzuna.

Alkateak ondorengo testua irakurri du:

"Gure taldeak askotan eskatu du Errenteriako Udalak "Kabia" proiektuaren antolakuntzapean 2012an eginiko jardura guztiek izan duten kostuei buruzko informazioa. Galdera hau Kulturako informazio-batzordean eta Bozeramaileen batzordean egin izan da, gaur arte ez dugularik jaso ez erantzunik, ezta berorri eutsiko dion txosten teknikorik.

Era nahasi batean jakin izan dugu gastu zenbaiten berri, hala nola proiektu horretan hainbat jardura egin ziren azpiegitura muntatzen laguntzen aritu zirela udal langileak, zeinak determinatu daitekeen gastu bat eragin baitu.

Arrazoirik gabeko informazio-falta hau dugulako, eskatzen diogu, UA Oren 62. artikulua babespean, Alkate jaunari xeheki erantzun diezaion ondoko galderei:



1. Zenbateko gastuak hartu ditu Udalak bere gain "Kabia" proiektua gauzatu al izateko?

2. Nola daude, udal langileen kostua barne, bananduta gastu horiek?"

Ondoren, mintzatu dira:

* Mendoza alkate jaunak (E.O. BILDU) esan du 2013ko otsailaren 21eko "Kabia" proiektuaren garapenaren inguruan aurkeztu zenuten idatziari erantzunez, honako hau jakinarazten dizuet:

"Kabia" proiektua 2012ko maiatzean hasi zen eta 2012ko irailera arte luzatu zen. 7 hilabete horietan guztira 49 jarduera gauzatu ziren eta 2500 pertsonatik gora parte hartu zuten.

Jarduera horiek gauzatzerakoan sortutako gastuak (muntaia, publizitatea, inprenta, soinua jartzea, aseguruak, materiala, gonbidatuak,...) guztira 32.874,48€ izan ziren. Honekin batera gastuen xehetasunak aurkezten ditugu.

Aipatu beharra dago gastuaren 7.438,20€, hain zuzen ere publizitatea, web orria eta logoa ordaintzeko kopuruak, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012an "Giza Eskubideen alorreko proiektuak gauzatzeko Diru-laguntzak" izeneko ekimenaren baitan emandako diru-laguntza jaso duela.

Langile gastuei dagokienez, berriz, ordu kopurua zehaztea zaila izateaz gain, aipatu beharra daukat lan horiek hiri mantenimendua departamentuko langileen berezko lanen barruan egin direla, beste ekitaldi eta egoera batzuetan orain arte den bezalaxe.

Hona hemen atalez atal xehakatuta:

Publizitatea.....	2.690,40
Web, logoa, diseinua.....	4.747,80
Kinokabia.....	3.405,36
Inprenta.....	927,58
Olatu Talka.....	388,80
Sonorizazioa.....	2.286,00
Edariak.....	340,22
Komunak.....	2.662,00
Gonbidatuak.....	3.607,94
Beste materialak.....	3.542,99
Montajea.....	8.100,39
Aseguruak.....	175,00
Guztira.....	32.874,48

* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du eskertzen duela informazioa. Berari arraroa egiten zaio modu hau erabili behar izatea, hemen daraman denboran sekula ez duelako



egin, eta ez lukeelako berriro baliatu nahiko. Ez zaio bidezkoa iruditzen egoera honetara iristea, Batzorde batean, Bozeramaileen Batzordean edo korridoreetan, informalki bederen, ematen ziezaioketelako informazio hori, baina denbora bat pasa denez, formula hau erabili behar izan dute. Hortaz, espero du bere taldeak aurrerantzean ez erabili behar izatea, baina erabili behar badute, egingo dute. Eta, berriro dio, eskertzen duela informazioa; saiatu da datu guztiak jasotzen; ez daki bateren batek huts egin dion, baina Alkateari eskatzen dio, idatziz baldin baditu, eman diezazkion, bestela, aktan jasoko direla uste badu ere.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du ez dutela ezkutatzeko asmorik izan, bertan emaniko datu guztiak kontu publikoak direlako. Gaineratu duenez, lehenago informazioa ez emateko arrazoiak beste batzuek izan dira, ez ezer ezkutatzeko asmorik zutelako. Bere aburuz argi eta garbi eman ditu eman beharreko datuak.

* * Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak) esan du bere taldeak ez duela sekula esan datuak ezkutatzeko asmorik izan denik.

* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) erantzun du, soilik gauzak argitu nahi zituela.

Mintzaldiak amaitutakoan.

8.- Galderak eta eskariak.

Inork ez du egin galdera-eskaririk.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:05 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.